

Mondragon Unibertsitateak IKT proiektuak garatuko ditu Eusko Legebiltzarrarentzat

2007/04/03

Mondragon Unibertsitateak erakunde publikoetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) berrien erabilera aztertzeko eta, batez ere, sustatzeko heziketa- eta ikerketa-proiektuak garatuko ditu **Eusko Legebiltzarrarentzat**. e-Democracia ikertzea da horien helburua, hau da, eskualdeak ordezkatzeko erakundeen eta tokiko agintarien eguneroko egitekoetan IKTak aplikatzea, beren jardueretan gardentasuna sustatzeko eta herritarren partaidetzaren alde egiteko, bai erakundeen erabakitzeko-prozesuen jarraipenean, bai haien partaidetza erabakitzeko-prozesu horien fase anitzetan. Azken finean, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliz orokorrean demokraziaren hobekuntza aurrera egitea da proiektu horren xedea.

Mundu osoko parlamentuetan eta tokiko eta eskualdeko erakundeetan demokrazia sustatzeko bi entitateen artean 2004an lorturiko lehen hitzarmen batetik sortu zen akordio hori, eta e-Democracia administrazioaren gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren funtsezko erreminta bihurtzeko.

Hitzarmen horrek dagoeneko baditu lehen aplikazio praktikoak. Berez, bi entitateak lanean ari dira erreminta horien erabilera areagotzea ahalbidetuko duten proiektu zehatzetan.

- **IT4ALL-Regions proiektua:** Informazioaren Gizartea garatzeko mundu mailako proiektua, e-Business, e-Inclusión eta e-Gobierno gisako ezagutza-alorrez gain e-Democracia ere garatzen duena
- **e-Democracia udako ikastaroa proiektua** (2007ko uztailaren 4a, 5a eta 6a)

Aurrekariak

CALRE- Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Konferentzien Osoko Biltzarrean –legeak egiteko eskumena duten Europako 74 eskualdetako Parlamentuetako lehendakariak osaturikoa–, 2003an eginikoa, informazioaren teknologien eta e-Democraciaren erabileran Parlamentuen egungo egoera aztertzeko beharra antzeman zen. Biltzarrean honako konpromiso honen alde egin zen: e-Gobierno eta e-Democracia administrazioaren gardentasunaren, demokrazian sakontzearen, instituzioen erantzukizunaren eta, azken finean, herritarren partaidetzaren funtsezko erreminta bihurtzera zuzenduriko neurri guztiak hartzea.

Hain zuzen, biltzar horretan erabaki zen asmo handiko europar proiektu hori zuzentzeko erantzukizuna Eusko Legebiltzarraren gain uztea. Horren konpromisoa: informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien aplikazioaren alorrean europar Parlamentuetan garatu diren esperientziak ikertzea, herritarrek gai publikoetara gerturatu daitezkeen eta horietan parte hartu dezaten.

Horren ostean, Eusko Legebiltzarrak **Mondragon Unibertsitatearen** esku utzi zuen proiektua garatzeko lan teknikoa eta akademikoa. Aldi berean, **IT4 ALL-REGIONS** mundu mailako proiektuan parte hartzeko aukera sortu zen, eta 10 europar Parlamentuk, horien artean Eusko Legebiltzarrak, osaturiko lan-taldean kide aktibo izatekoa. Horrela, koordinazio lanen barruan, gomendioak eta jardunbide egokiak diagnostikatzeko eta garatzeko erremintetzat oinarri metodologiko bat diseinatuko du unibertsitateak, eta heziketarako edukiak ere sortuko ditu, gai horren inguruko edukiak transferitzeko.

IT4ALL REGIONS proiektuari esker instituzioek web zerbitzua izango dute; bertan, ezagutzaren transferentzian eta nahi duten instituzioei e-Democracia estrategiaren eta proiektuen alde apustu egiten laguntzeko esperientziak, gomendioak eta jardunbide egokiak identifikatuko dira:



gardentasun ekimenak, eskaerak sustatzeko zerbitzuak, eztabaidak, boto elektronikoaren inguruko esperientziak, etab.

Hitzarmen hori sinatzeari esker, **Mondragon Unibertsitatearen** heziketa-estrategia indartu egin da. Horren zutabeetariko bat unibertsitatearen, teknologia-zentroen eta enpresen, erakunde eta instituzio publikoen arteko loturan datza. Hain zuzen, bi entitateek elkarturik jarduteko gaitasuna sendotzea du helburu hitzarmenak, baita Eusko Legebiltzarraren jarduerak sorturiko beharrak asebetetzea ere.